



AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/03/01/	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa
------------------------------	--	---

“Foroa, Legazpin bizi-kalitatea hobetzeko konpromisoa hartu duten eta gai horrekiko sentsibilizatuta dauden pertsonen elkargunea eta parte-hartzeko gunea da; elkargune horren jarduerak udal-kudeaketa aberasten du”

“Legazpiko Agenda 21eko Foroaren izaera eta funtzioak” izeneko dokumentua. 2007

Legazpiko Agenda 21eko Foroan parte hartu dugu ...

24 pertsona; ohi bezala, osaerari dagokionez **anitza** (arduradun politikoak, teknikariak, herriko elkarteetako ordezkariak, bizilagunak,...); eta Legazpin iraunkortasuna lortzeko bidean garatu beharreko proiektuetan elkarrekin lan egiteko **konpromisoa** hartu dutenak.

Foroaren erronketako bat, besteren artean, pertsona eta kolektibo berrien parte-hartzea lortzea da eta eginkizun horretan taldekideen konpromisoa islatzen da; Foroan egiten den lana kanporatzen saiatzen gara,... poliki-poliki, aurrera eginez!

Eskerrik asko guztioi Foro hau bizirik mantentzeagatik!

Izena
• Jose Luis Cid
• Jose Luis Zabaleta
• Vicente Garmendia
• Joxan Auzmendi
• Montse Vallejo
• Martin González
• Arantxa Segurola
• Manuel Fernandez

Izena
• Milagros Noguera
• Gloria Martínez de Guereñu
• Juan Carlos Altzelai
• Jose Ignacio Gil
• Ana Moreno
• Mariano Guerreiro
• Agurtzane Elustondo
• Iker Azurmendi

Izena
• Lurdes Etxaniz
• Maite Lazaro
• Fernando Martínez de Albéniz
• Juan Miguel Urrutia
• Inma Hernández
• Juan Ramón Larrañaga
• Iciar eta Zorione, Prometea SC

Berriro hemen elkartu gara, lan egiteko asmoarekin, elkarrekin.....

Lau gai; horietatik, lehenengo hirurak sakontzeko denbora izan dugu,...; beraz, hurrengo bileran badugu zer egin!. Hauek dira gaiak:

- “Legazpiko Agenda 21eko Foroaren izaera eta funtzioak” izeneko dokumentuaren zirriborra aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea.
- **Agenda 21eko Foroak 2007. urtean landuko dituen proiektuak** elkarrekin adostea eta lehenestea.
- **2007. urtean Foroak egingo dituen bileren egutegia** zehaztea.
- Datorren 2007ko ekainaren 5ean **Ingurumenaren Munduko Eguna** ospatuko denez, zein proposamen egin ditzakegu egun horretarako? Hasierako ideiak.

Segidan, puntuz puntu, debatearen, egindako hausnarketen eta lortutako akordioen berri ematen dizuegu. Elkarlanak eman duena!





AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/03/01/	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa
-----------------------	---	--

¿Zer egin dugu? Foroaren saioaren emaitzak

- “Legazpiko Agenda 21eko Foroaren izaera eta funtzioak” izeneko dokumentuaren zirriborra aurkeztea, eztabaidatzea eta onartzea.

Legazpiko Udalak prestatu duen “Legazpiko Agenda 21eko Foroaren izaera eta funtzioak” izeneko dokumentua irakurri da. Dokumentu hori joan den otsailaren 1ean egindako Foroan eztabaidatu eta proposatu zenetik abiatuta egin da. Irakurri ondoren, Foroan parte hartu duten hainbat kidek hasierako dokumentuari egin dizkieten ekarpenak jaso ditugu eta horien gainean eztabaidatu dugu.

Hona hemen guzti horren emaitza: **Eranskinean dokumentu osatua eta behin betikoa jaso da.** Guztion artean adostu genituen puntu guztiak modu egokian jasota egotea espero dugu!

- **Agenda 21eko Foroak 2007. urtean landuko dituen proiektuak** elkarrekin adostea eta lehenestea.

Foroaren izaera eta funtzioak zehaztu ondoren, eguneko gai-zerrendaren bigarren gaiari heldu diogu; gai garrantzitsua bera, izan ere **2007. urtean Agenda 21aren barruan burutuko diren proiektuetatik Foroan modu parte-hartzailean landuko diren proiektuak zeintzuk izango diren elkarrekin adosten eta lehenesten saiatu gara.**

Horretarako, Foro honetan landu eta diseinatu daitezkeen proiektuen zerrenda batetik (49 guztira) abiatu gara. Proiektuak irakurri ondoren, Foroan parte hartu duen **kide bakoitzak 2007. urtean Foroan lan daitezkeen 5 ekintza lehenetsi ditu.** Ondoko taulan leheneste-lan horrek eman dituen emaitzak azalduko ditugu:

	2007rako aurreikusitako Ekintza Legazpiko Iraunkortasunaren aldeko Tokiko Ekintza Plana	Xehetasun interesgarriak	A21 Foroaren parte-hartzea jaso dezaketen proiektuak	Jasotako boto-kopurua
1. LERRO ESTRATEGIKOA. Garapen ekonomiko orekatua, ezberdindua eta iraunkorra lortzeko aurrera egitea.				
1.2.5.	Emakume langabetuei eskainitako prestakuntza.	UGGASA	Foroaren parte-hartzea ikasturteko saio batean	2
1.4.1.	Legazpiko eta eskualdeko balore turistikoak zabaldu.	LENBUR	Diseinu partziala eta ingurumenaren ikuspegia	-
1.4.2.	Aizkorri-Aratz parke naturalaren eremuan landa-turismoa garatzeko ekimenak bultzatu.	Bilerak Brinkola eta Telleriarte auzoko bizilagunekin... .. LENBUR	Diseinu parte-hartzailea	2
2. LERRO ESTRATEGIKOA. Gizarteratzea, elkartasuna eta berdintasuna sustatzea.				
2.3.3.	Genero-berdintasuna sustatzeko sentsibilizazio-kanpaina.		Ingurumenaren ikuspegia	4
2.6.1.	Laguntzak nazioarteko lankidetzari.		Ingurumenaren ikuspegia	-
2.6.2.	Udalerrian lan egiten duten gizarte arloko elkarteak lagundu.		Ingurumenaren ikuspegia	3
3. LERRO ESTRATEGIKOA. Bizi-aztura osasungarriak sustatzea eta kultur garapenerako eta aisialdirako aukerak hobetzea.				
3.1.2.	Irakurmena sustatzeko jarduerak.		Ingurumenaren ikuspegia	1
3.1.3.	Legazpi ezagutzeko eta bertako identitatea indartzeko jarduerak.		Diseinu parte-hartzailea	3
3.1.4.	Herriko jaiak eta ohiturak gorde eta bultzatu.		Ingurumenaren ikuspegia	-
3.1.5.	Hedapen kulturalako jarduerak: antzerkia, hitzaldiak, musika,....		Ingurumenaren ikuspegia	2
3.2.1.	Gazte-txoko.		Ingurumen-gaiak sartzeari	1
3.2.2.	Haur-jarduerak oporraldietan (Gabonetako haur-parkea, Uztaila kulturala).		Ingurumenaren ikuspegia	-
3.2.5.	Denbora Libreko begirale titulua lortzeko ikastaroa.		Ingurumenaren ikuspegia	-
3.3.1.	Zineskola.		Ingurumen-gaiak sartzeari	-
3.3.2.	Antzerkia aktualitate-gaiei buruzkoa.		Ingurumen-gaiak sartzeari	1

AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/03/01/	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa
------------------------------	--	---

	2007rako aurreikusitako Ekintza Legazpiko Iraunkortasunaren aldeko Tokiko Ekintza Plana	Xehetasun interesgarriak	A21 Foroaren parte-hartzea jaso dezaketen proiektuak	Jasotako boto-kopurua
3.3.3.	Hausnarketa eta prestakuntza bultzatzeko jarduerak, ikasleei, gurasoei eta irakasleei zuzenduta.		Ingurumen-gaiak sartzeari	2
3.4.2.	Helduen euskalduntzea eta alfabetatzea.	Mintzalaguna...	Ingurumen-gaiak eta Legazpiko gaiak sartzeari	2
3.4.7.	Aisialdian euskararen erabilera bultzatzeko jarduerak.	Udaleku irekiak,...	Ingurumen-gaiak eta Legazpiko gaiak sartzeari	1
3.5.3.	Aisialdiko kirol jardueren eskaintza zabaldu: Kirola guztiontzat Programa.		Ingurumenaren ikuspegia	2
3.5.5.	Igerilekuko instalazioak hobetu.	Obrak bukatu eta kanpoko igerilekua ireki	Ingurumenaren ikuspegia	1
3.5.6.	Futbolzelaiko instalazioak hobetu.	Harmailak, aldagelak,.... Egokitu.	Ingurumenaren ikuspegia	-
4. LERRO ESTRATEGIKOA. Balore naturalak, biodibertsitatea eta paisaia babestea eta hobetzea.				
4.1.1.	Natur ingurunea babesteko irizpideak Arau Subsidiarioetan sartu.	Behin betiko onarpenean sartu.	Diseinu parte-hartzailea	6
4.1.2.	Aizkorri-Aratz parke naturalaren Natur Baliabideak antolatzeke Plana egiteko lanean parte hartu.	Nahitaezkoa da kudeaketa-organoa eratzea.	Diseinu parte-hartzailea, Udalari lagunduz	5
4.1.4.	Zuhaitz Eguna aldiro ospatu		Aldez aurreko programazioa	1
4.2.1.	Biodibertsitatea zaintzeko eta hobetzeko plana egin.	Zuhaitz bakanak babestu, PEFC programa zabaldu.	Diseinu parte-hartzailea	3
4.2.2.	Bertako espezieak landatzeko laguntzak eskaini.	Zuhaitz Eguna.	Programazio parte-hartzailea	1
4.2.3.	Udaleko baso-politika aztertu.	PEFC programaren jarraipena.	Berrikuspen parte-hartzailea	2
4.3.1.	Goi-ibarrean nahiz hirigunean, Urola ibaiertzetako bazterrak garbitu eta saneatu (Erreka Eguna)		Programazio parte-hartzailea	3
4.3.5.	Ekosistema urtarren balore naturalak zabaldu.		Lanketa parte-hartzailea	3
5. LERRO ESTRATEGIKOA. Hirigintza harmoniatuaren alde apustu egin, hiri-esparruaren kalitatea hobetzen jarraituz eta mugikortasun iraunkorra bultzatuz.				
5.1.1.	Hirigintzako planeamenduan iraunkortasun-irizpideak sartu.	Plan Orokor berria. Komunikazioa	Diseinu parte-hartzailea (komunikazioa)	5
5.1.3.	Urtatzako parkea hobetzeko jarduketari jarraipena eman.		Diseinu parte-hartzailea	-
5.2.1.	Auzoak birgaitu.	Auzokideekin jadanik landutako ekintzak garatu.	Diseinu parte-hartzailea	5
5.4.2.	Paper-fabrika eta ingurua berreskuratzeko lanean jarraitu.	Lanaren Oroipen-Museoa, Txillidaren erakusketa	Diseinu parte-hartzailea	-
5.5.1.	Udalerrien arteko garraio publikoa hobetzeko ekintzak (Mugikortasun Iraunkorraren Plana).	Urola kaleko enpresetara lanorduetan joateko Plana...	Lanketa parte-hartzailea	5
5.6.6.	Mugikortasun-azturak alda daitezkeen sentibilizatu.	Mugikortasunaren artea, autoan elkarrekin joateko zerbitzua, bizikleta-trena elkarteko jardunaldia...	Programazio parte-hartzailea	6
5.6.7.	Kale Nagusia oinezkoentzako egokitu.		Diseinu parte-hartzailea	6
6. LERRO ESTRATEGIKOA. Natur baliabideen kudeaketa hobetzea, baliabide horien (ura eta energia) kontsumoa arrazionalizatzea eta hondakin kudeaketa hobetzea.				
6.1.6.	Etxeke uraren kontsumoa gutxitzeko herritarrak sentibilizatzeko kanpainak.		Diseinu parte-hartzailea	7
6.3.3.	Herritarrak euren etxebizitzetan energia berriztagarrien instalazioak jartzeko dauden laguntzei buruz informatu.		Diseinu parte-hartzailea	3
6.3.6.	Gabonetan herrian jartzen diren argietan, energia-eraginkortasunaren irizpideak ezarri.		Elkarrekin egindako hausnarketa	3
6.3.7.	Herriko argien sarean argi-kutsadura aurreikusteari eta energia aurrezteari buruzko azterketa egin.		Azterketa kualitatiboa	5
6.4.5.	Herritarrak sentibilizatu, hiri-hondakin gutxiago sor ditzaten eta gaikako zabor-bilketarako ezarritako dauden instalazioak erabil ditzaten.	Sasieta	Proposamenak egin	9
7. LERRO ESTRATEGIKOA. Airearen eta soinuaren kalitatearen kontrola hobetu.				

AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/03/01/	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa
------------------------------	--	---

2007rako aurreikusitako Ekintza Legazpiko Iraunkortasunaren aldeko Tokiko Ekintza Plana		Xehetasun interesgarriak	A21 Foroaren parte-hartzea jaso dezaketen proiektuak	Jasotako boto-kopurua
8. LERRO ESTRATEGIKOA. Udal kudeaketan kalitatea eta iraunkortasuna eta herritarren parte-hartzea sustatzea.				
8.1.1.	Udal barruko koordinazioa hobetu, horretarako Garapen Iraunkorrerako batzordea erabiliz.	"GPS" proiektua	Proposamenak egin	1
8.3.1.	Agenda 21eko Foroa dinamizatu.		Elkarrekin programatu	5
8.3.2.	Herritarren parte-hartzea lortu, herriko jaiak eta tradiziozko ekintzak antolatzeko eta diseinatuzko.	Erregeen kabalgata, jaiak, San Joan...	Ingurumenaren ikuspegia ekintzetan	-
8.3.3.	Legazpiko ikastetxeen Eskola-agenda 21 programarekin jarraitu.		Eskolako Agenda 21eko Foroan parte hartu	1
8.4.1.	Tokiko Agenda 21 zabaldu.	Zabalkunde-ekintzak	Elkarrekin diseinatu	1
8.4.3.	Herriko elkarteekin lan egin, herritarrak iraunkortasunari buruzko gaietan sentsibilizatzeko.	Uraren gaineko argazki-lehiaketa	Diseinuan eta egitean parte hartu	-
8.4.4.	Urtero Aste Berdea ospatu.		Programazio parte-hartzailea	-
8.5.2.	"Herritarren Ataria" martxan jarri.		Diseinu parte-hartzailea	1
8.5.3.	Kexak eta eskariak jasotzeko programa hobetu.		Diseinu parte-hartzailea	1

OHARRA: Nahi gabe, 5.1.1 eta 5.5.1 proiektuei emandako botoak ez ziren ondo kontatu foroaren saioan. Kontaketa berrikusi ondoren, taulan ageri diren emaitzak dira behin betikoak.

Laburtuz, **saioan parte hartu dutenen ustez, zeintzuk dira 2007. urtean Legazpiko Agenda 21eko Foroak landu behar dituen lehentasunezko ekintzak?**



Ekintza		Botoak
6.4.5.	Herritarrak sentsibilizatu, hiri-hondakin gutxiago sor ditzaten eta gaikako zabor-bilketarako ezarritako instalazioak erabil ditzaten.	9
6.1.6.	Etxeko uraren kontsumoa gutxitzeko herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak.	7
4.1.1.	Natur ingurunea babesteko irizpideak Arau Subsidiarioetan sartu.	6
5.6.6.	Mugikortasun-azturak alda daitezzen sentsibilizatu.	6
5.6.7.	Kale Nagusia oinezkoentzako egokitu.	6

Erronka ederra Foroarentzako! Izan ere, 4.1.1. eta 5.6.7. proiektuez gain (aplikatzekoak direnak), beste hiru ekintzek hezkuntza-dimentsioa dute eta iraunkortasunaren sentsibilizazioarekin lotuta daude. Beraz, guztion artean ingurumenarekin eta iraunkortasunarekin errespetutsuagoak izango diren aztura berriak hartzea ahalbidetuko dizkigun ideia, ekintza, proposamen,... berriak egiten saiatuko gara; gero hori guztia udalerrian zabalduko dugu. Gainera, eta ur-, hondakin- edo mugikortasun-eremuez gain, beste batzuk ere azter daitezke, hala nola, energia¹,...

¹ Iraunkortasunaren alde hezteko apustua dela-eta, hona hemen **GAP Programaren helbidean sartzeko lotura**, http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-564/es/contenidos/informacion/gap/es_gap/indice.html. Programaren siglak ingelesez daude, "Global Action Plan" (GAP) eta Ingurumenerako Nazio Batuen Programak (PNUMA) iragarritako "Ekintza Plan Globala" adierazten du. Programaren helburua pertsonen bizi-baldintzak hobetzea da, ingurumenean sortzen dugun inpaktua murrizteko etxetik bertatik egin daitezkeen ekintzak bultzatuz. Hau da, iraunkortasuna egunerokotasunera jaitea. Nahi baduzu, **zuk ere parte har dezakezu GAP Programan!** Horretarako, sar zaitez esandako helbidean.

AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/03/01/	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa
-----------------------	---	--

• **2007. urtean Foroak egingo dituen bileren egutegia zehaztea.**

Landuko diren proiektuak aukeratu ondoren,... egutegia egingo dugu! Legazpiko Udalak egin duen hasierako proposamenetik abiatu gara eta proposamen horri Foroaren ikuspegia ezarri diogu. Beraz, eta interesa duen edonork kontutan izan dezan, hona hemen **2007. urtean Legazpiko Agenda 21eko Foroak bilerak egiteko erabaki dituen egunak:**

Bilera	Noiz?	Landuko diren ekintzak/gaiak?
1. bilera	Osteguna, 2007ko otsailaren 1ean	<ul style="list-style-type: none"> 2006an, Legazpiko Ekintza Planeko ekintzen garapenaren ebaluazioa. "Legazpin Kudeaketa iraunkorra eta parte-hartzailea" proiektuari buruz Kualitate Lantaldeak 2006an zehar egin duen lanaren emaitzen aurkezpena. Legazpiko Agenda 21eko Foroaren funtzioak elkarrekin zehaztu.
2. bilera	Osteguna, 2007ko martxoaren 1ean	<ul style="list-style-type: none"> "Legazpiko Agenda 21eko Foroaren izaera eta funtzioak" izeneko dokumentua onartu. 2007an Foroak landuko dituen proiektuak lehenetsi. Legazpiko Agenda 21eko Foroaren lan-programa eta bileren egutegia zehaztu.
3. bilera	Osteguna, 2007ko martxoaren 29an	<ul style="list-style-type: none"> Legazpiko Eskola-Agenda 21eko Foroa.
4. bilera	Osteguna, 2007ko apirilaren 19an	<ul style="list-style-type: none"> Ingurumenaren Munduko Eguna dela-eta (2007ko ekainaren 5ean), aurreneko ideiak, 6.4.5. eta 6.1.6. proiektuen gainean.
5. bilera	Osteguna, 2007ko maiatzaren 17an	<ul style="list-style-type: none"> Proposamena: "Legazpin Kudeaketa iraunkorra eta parte-hartzailea" proiektuaren gaineko dokumentuak eta hausnarketak landu eta ekarpenak egin. Zehaztu gabeko bestelako gaiak, proiektuen lehenetsunaren arabera.
6. bilera	Osteguna, 2007ko ekainaren 14an	<ul style="list-style-type: none"> Zehaztu gabeko bestelako gaiak, proiektuen lehenetsunaren arabera.
7. bilera	Osteguna, 2007ko urriaren 4an	<ul style="list-style-type: none"> Zehaztu gabeko bestelako gaiak, proiektuen lehenetsunaren arabera.
8. bilera	Osteguna, 2007ko azaroaren 22an	<ul style="list-style-type: none"> Zehaztu gabeko bestelako gaiak, proiektuen lehenetsunaren arabera.

Eginda!

Eginda!



AGENDA 21EKO FOROAREN AKTA

Eguna: 2007/03/01/	Ordua eta iraupena: 18:30, ordu eta erdi	Lekua: Legazpiko udaletxeko Batzar Aretoa
-----------------------	---	--

Egutegia erabakita eta proiektua lehenetsita... ;datorren apirilaren 19an ikusiko dugu elkar!

Bilera horretan aukeratutako lehenengo bi proiektu aztertuko ditugu; lan hori iraunkortasunaren hezkuntza-alorrean sar dezakegu eta 2007ko ekainaren 5ean ospatuko den Ingurumenaren Egunaren atariko lana izango da. Beraz, "etxeko lanak" ditugu, badugu zertan pentsatu!

- Hausnarketarako, ezagutzera emateko, aztura osasungarriagoak hartzeko,.... **zein ideia, proposamen, hezkuntza-ekimen datozkigu burura eta proposa ditzakegu Legazpin kontsumoaren, hondakinen eta uraren inguruan ...?**

Bukatzeko, **ez ahaztu hitzordua dugula datorren martxoaren 29an Eskolako Agenda 21arekin.** Bilera horretan Legazpiko ikastetxeek eta bertako ikasleek hartuko dute parte eta iraunkortasunaren gainean egin dituzten lanen berri emango digute. Zalantzarik gabe aberasgarria eta interesgarria izango da haiek dakartzaten ekarpenak eta ikuspegiak entzutea!

Eskerrik asko guztioi eta hurren arte; gozatu udaberriaren etorrera!



LEGAZPIKO
UDALA



Eranskina. Legazpiko Agenda 21eko Foroaren izaera eta funtzioak" agiriaren azken bertsioa.

AGENDA 21. HERRITARRAK PARTE-HARTZEKO FOROAREN IZAERA ETA FUNTZIOAK ETA LEGAZPIKO UDALAREKIN DUEN HARREMANA

ZER DA HERRITARRAK PARTE-HARTZEKO FOROA?

Foroa, Legazpin bizi-kalitatea hobetzeko konpromisoa hartu duten eta gai horrekiko sentsibilizatuta dauden pertsonen elkargunea eta parte-hartzeko gunea da; elkargune horren jarduerak udal-kudeaketa aberasten du.

- Elkargune aholku-emailea da.
- Hauxe da bere helburu nagusia: legazpiarrek udal mailako kudeaketa iraunkorrean parte har dezatela.

ZEINTZUK DIRA FOROAREN FUNTZIOAK?

Udalerrirako garrantzitsuak diren gai eta proiektu zehatzei buruz elkarri informazioa trukatzeko eta ideiak eta proposamenak jasotzeko gunea da (azken finean, herritarren pertzepzioa jaso nahi da). Horrezaz gain, landutako eta/edo eztabaidatutako gaiei buruz ahalik eta adostasun handiena lortzea da helburu.

- Gune parte-hartzailea: informatzeaz gain, proposamenak, ideiak, iradokizunak... eta horrelakoak jasotzea da helburu eta, dagokionean, proiektu zehatzak burutzeko lanetan parte hartzea bilatzen da.
- Azter daitezkeen gaiak proposatzea.
- Udalerrirako interesgarriak diren gaiei buruz eztabaidatzea.
- Legazpirako etorkizun iraunkorra ikustarazten saiatzen da eta Agenda 21eko Ekintza Plana osatuko dituzten ekintzak proposatzen ditu.
- Legazpiko Agenda 21eko Ekintza Planaren jarraipena eta ebaluazioa egiten du.
- Ezagutza konpartitu: bestelako esperientzietatik ikasteko eta, halaber, bertako esperientzia Legazpirekin eta beste udalerriekin konpartitzeko prest dagoen taldea da.
- Udalak, herritarrek iraunkortasunaren eremu desberdinei buruz duten pertzepzioa jasotzen du eta horiek udal-kudeaketan sartzeko erabakia hartzen du.

ZEIN GAI AZTERTZEN DIRA?

Interes orokorreko gaiak aztertzen dira

- Ez dira interes banakako gaiak aztertzen. Gai horietarako Udalak bestelako zerbitzuak eskaintzen dizkie herritarrei, hala nola, kexa eta iradokizunak jasotzeko zerbitzua edo udal departamentu desberdinekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera.

Foroa Agenda 21aren eskutik jaio denez (jatorriz ingurumenarekin lotutako gaiak aztertzen zituen), Foroan aztertzen diren gaiak batik bat ingurumenarekin lotutakoak izan dira eta dira.



**LEGAZPIKO
UDALA**



Baina, era berean, udalerrriaren ikuspegi orokor eta integrala mantentzen da, beti ere iraunkortasunaren perspektibatik.

- Foroak udaletxeko batzordeetan lantzen diren bestelako gai edo proiektuetan ingurumenaren aldagaia sartzan lagun dezake.
- Gai sozio-kulturalak eta ekonomia arlokoak: egoki irizitako eta/edo ikuspegi orokorragoa edo osagarria eskatzen duten gaiak aztertu ahal izango dira baina, beti ere, udal batzordeekin koordinatuta.

ZEINTZUK OSATZEN DUTE FOROA?

Foroa plurala eta irekia da; talde heterogeneoa da, iritzi eta ikuspegi desberdina dutenek osatutakoa.

- Osaera horrek gaiak ikuspegi orokor batetik aztertuko direla bermatzen du.
- Taldea ahalik eta pluralagoa izan dadin, herriko kolektibo desberdinak bertan izatea da helburua: emakumeak, gizonak, gazteak, adinekoak, auzoetako elkarteak, elkarte desberdinak, enpresak, merkatariak, sindikatuak, ikastetxeak, osasun zentroa, erlijio-taldeak, herritar norbanakoak,.....

Foroaren bilerak irekiak dira eta, horietan, edozein legazpiarrek har dezake parte.

- Foroan parte hartzen ohi duten pertsonen zuzenean bidaltzen zaie hurrengo bileran parte hartzeko deialdia.
- Horrezaz gain, deialdiaren berri herriko komunikabideetan ematen da, interesa duen edozein herritarrek joateko aukera izan dezan.
- Bertan parte hartzen dute Legazpiko Udaleko alkateak, zinegotziek eta teknikariek.

NOIZ BILTZEN DA?

Urte hasieran urte horretan Foroak egingo dituen bilerak erabaki eta egutegi bat adostuko da.

- Bilerak maiztasunez egitea komeni da, bilera batetik bestera epe luzea utzi gabe.

ZEIN DESBERDINTASUN DAGO FOROAREN ETA UDALETXEKO BESTELAKO PARTE-HARTZE GUNEEN ARTEAN?

Heterogeneoagoa da.

Foroak ikuspegi orokorragoa du eta ikuspegi hori gero gai desberdinetan artikulatzen da (orain arte ingurumen-arloko gaiak nagusitu dira).

Legazpi, 2007-03-01